


ODIN REDBEARD

BALDAR BIKINGO

ETA

PIL-

LAPURRAK



desclée

BALDAR BIKINGO

ETA

OPIL-

LAPURRAK

ODIN REDBEARD



desclée



© Nosy Crow Ltd. 2012
Idazlea: Odin Redbeard
Testua © Hothouse Fiction, 2012
© Ilustrazioak: Sarah Horne 2012



Jatorrizko izenburua:
Vulgar the Viking and the Rock Cake Raiders
Itzulpena © 2018 Usoa Wyssenbach Ibarra

© 2018, DESCLÉE DE BROUWER, S.A.
Henao, 6 - Bilbao
Tlf.: 94 423 30 45
www.desclée.eus
www.edesclée.com

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein eratako berregintza, komunikazio publiko eta moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke


(Zigor Kodearen 270. artikulua eta hurrengoak).

CEDRO erakundeak babesten ditu aipatu eskubide horiek.



ISBN: 978-84-330-2982-9
Legezko gordailua: BI-684-2018
Inprimatzailea: Grafo S.A. - Basauri





LEHENENGO ATALA

GOIZEAN GOIZ JAIKI

KUKURRUKUUU!!

Oilarrak goizean goizeko giro lasaia hautsi zuen bere kantu biziarekin.

Negar-ibarren, herritar gehientsuenek lo goxoan jarraitzen zuten bitartean, herrigunetik ez oso urrun, etxola bateko logela desordenatu batean, Baldar izeneko gaztetxo bat esna zegoen. Oheko tapakiak tirakada batez kendu, eta jauzi batez jaiki zen.



Maindireak mordoilo batean erori ziren lurrera, eta zaunka haserre ozen bat irten zen haien artetik.

—Barkatu, Marmar! —esan zuen Baldarrek bere oinetan lo egondako txakur iletsuari begira—. Hor zeundela ahaztu dut!

Txakurrak marmar egin zuen, eta belarriari hazka egin zion atzeko hankaz.


Baldarrek kontu handiz leundu zuen larruzko tunika, eta tinko estutu foka larruzko praka motzen lokarria.

Kaleko arropaz jantzita oheratu zen bart, gaurkoa egun handia baitzen, eta ez zuen segundo bakar bat ere janzen galdu nahi.

Mutikoak danbateko batez ireki zuen logelako atea, eta sukaldera joan zen korridore estuan barrena.

Arrapaladan sartu zen ezkaratzean, eta hantxe, txoko batean, tankera kankailuko figura ilun eta handi bat ikusi zuen Baldarrek.





Hain zen handikotea eta
zabala, mendi txiki bat
baitzirudien.

Gorpuzkera erraldoi hark
sukaldeko leihoa ia osorik
tapatzen zuenez, gela osoa
ilunpetan zegoen. Aizkora
zorrotz eta luze bat zeukan
eskuan.

—Egun on, ama —agurtu zuen Baldarrek.

—Odinen bizarra! —esan zuen Helgak, Baldarren amak, sugarrak dardararazi zituen bere ahots durunditsuaz—. Zertan zabiltza hain goiz jaikita?

—Historia Eguna dugu gaur! —erantzun zion Baldarrek pozarren. Mutikoaren atzetik, Marmar sartu zen sukaldera. Ufaka, suaren ondoan etzan zen luze-luze, eta loak hartu zuen berriz.

—Historia Eguna? —errepikatu zuen Helgak, eta Baldarren tamaina bertsuko enbor bat erdibitu zuen aizkorakada bakarraz.

—Ezin konta ahala bider esan dizut-eta! —erantzun zion semeak—. Egun oso bat bikingoen ohiturak ikasteko.

Baldarren amak kopeta zimurtu zuen harrituta.

—Gu bikingoak gara —esan zuen.

—Baina ez *benetako* bikingoak! —kexatu zen Baldar—. Aspaldiko garaietan bezala.



Ulertzen? Dena lapurreta eta harrapaketa eta abentura zenean itsaso zabalean.

—Mutikoak burua astindu zuen triste—. Baina Negar-ibarren bizi diren bikingoek... a zer-nolako zaletasunak dauzkaten! Lo-kuluxkak, lorezaintza edota... edota... joskintza.

Helgak are gehiago zimurtu zuen kopeta.

—Zer du, ba, txarra joskintzak?

—Dena! —purrust egin zuen Baldarrek—. Aspergarria da, hemengo gehiena bezala. Historia Eguna kenduta, noski.

—Inoiz ez zaitut hain gogotsu ikusi beste ezer ikasteko —esan zuen amak. Eta susmoz beterik begiratu zion semeari—. Azpijokoren bat al darabilzu?

—Ez.

—Beti darabilzu-eta zerbait.

—Ezetz ba! —esan zuen Baldarrek hasperenka—. Historia Eguna dugula! Behar bezalako bikingoena. —Eta bularraldea puztuta, ukabilak estutu zituen—. Egunen batean, neu ere izango naiz benetako bikingoa.



—Hara, *Benetako Bikingo* jauna, inora joan baino lehen, hobe duzu bainuontzian sartu, eta txima zikin horiek garbitu. A zer kuxidadea!

—Baina, ama! —Baldar intzirika hasi zen—. Horrela behar dute. Non ikusi duzu zuk orrazkera zaintzen duen bikingorik?

—Zure aita, hain zuzen —esan zion Helgak—. Ilea garbi-garbi eramaten du beti.

—Aita?! —purrustaka hasi zen Baldar—. Marmar da bera baino bikingoagoa.


Bere izena entzutean, Marmarrek begi bat ireki, ufa ozen bat egin, eta berriz ere lokartu zen.



—Ados, nahi duzun bezala —hasperen egin zuen Helgak, eta enbor multzora itzuliz jarraitu zuen—: baina garbitu eskuak gosaldu aurretik. Altze kakarekin malabarismoak egiten ibili zarela dirudi.



Baldarrek eskuei erreparatu zien. Amak arrazoi zuen. Altze kakarekin jolasten ibilia zen berriz ere. Bere zaletasun handienetako bat zen.



BALDAR BIKINGO ETA OPIL-LAPURRAK

—Ezta pentsatu ere —ausartu zen esatera.
Eta besoak gurutzatuta, protestaka jarraitu
zuen—: Bikingook ez ditugu eskuak garbitzen.
Nahiago dugu moztu.

Helgak aizkora jaso, eta tinko begiratu
zien semearen eskumutur meharrei.

—Hala nahiago baduzu...
—esan zuen.

Baldarrek listua
irentsi zuen.
Ama ez zen
arinkeriaz
mehatxatzen
zuten
horietakoa.
Behin, leihotik
kanpora buruz
behera dilindan
jarri zuen
behatzetako
azazkalak moztu
nahi ez zituelako.





Eta, beste batean, sokaz arroka batean lotu, eta mendian behera bidali zuen jirabiraka bruselazak ez jateagatik. Baina, ziur asko, ez zen kapaz izango eskuak kolpe batez mozteko, ezta?

EZTA?!

—Konforme —amore eman zuen mutikoak azkenean—. Eskuak garbituko ditut. Baina oraingoan bakarrik.

Helgak aizkora jaitsi zuen. Irribarrea marraztu zitzaion ezpainetan.

—Erabaki zuhurra —esan zuen, eta enbor pusken multzora itzuli zen berriz.

